

KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNAREN EBALUAZIOA INGURUNE BIRTUALETAN GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAN

Tesiaren egilea: Ainhoa Ezeiza Ramos

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

Tesi-zuzendaria: Daniel Losada Iglesias

Tesiaren laburpena:

Ikerlan honetan, ingurune birtual akademikoen hurbilpen esploratorio bat egin da, komunikaziorako gaitasunaren garapen eta ebaluazioari lotutako esku-hartze didaktikoen bitartez. Unibertsitateko lehen mailako 417 ikasleren 2.907 idatzizko ekoizpen hartu dira analisiaren oinarri, bereziki ingurune birtualen dimentsio erreferentzialak eta sozialak aztertzeari begira.

Dimentsio erreferentzialei lotutako emaitza nagusi gisa, argi ikusi da ikasleak graduko lehen mailan gai direla idatzizko testuarterako lan akademiko konplexuak ekoizteko, unibertsitatearen testuinguruak eskatzen dituen baldintza diskurtsiboak betez. Horretarako zailtasun handienetako bat erreferentzia bibliografikoak testuan zehar txertatzea eta amaieran egoki zerrendatzea dela ikusi da, baina zailtasun horiek nabarmen arindu daitezke elkarren arteko erregulaziorako tutoretza-jarduerak erabiliz ikas-emaitzak hobetzeko estrategia didaktiko gisa. Erregulazio hori ingurune birtualeko tresnak erabiliz antolatzen bada, etengabe berrikusteko eta orientatzeko aukera zabaltzen da.

Dimentsio sozialari dagokionez, emaitza deigarriak jaso dira foro birtualetako komunikazioaren nolakotasunean, bai euskara/gaztelania hizkuntzen arteko parekotasunari lotuta eta bai adierazkortasun linguistikoaren erabileran. Ikasleek ingurune birtuala leku sozial gisa identifikatu dute eta elkarren artean erregulatu dute elkarreragina eta hizkuntz erregistroa, komunikazio-beharren arabera.

Azkenik, prozesu osoan zehar hainbat dilema etiko sortu da, ikerlan-lerro berri bat zabaltzea eragin dutenak, ilusionismo soziala deituriko lan egiteko moduetatik abiatuta.

